# Xedapen Orokorrak

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA**

**1124**

24/2011 DEKRETUA, otsailaren 22koa, zeinen bidez aldatzen baita Eibarko Egoitza-Zentroa sortu eta Eibarko Hezkuntza Esparruko administrazio-egitura eta -antolaketa zehazten duen 164/2002 Dekretua.

Uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren bidez, Eibarko Egoitza Zentroa sortu zen eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehaztu ziren.

Dekretu horren 5.2 artikuluak xedatzen du Eibarko Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentroan ikasleak onartzeko araudia Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren agindu baten bidez zehaztuko dela eta, orobat, aipatutako agindu hori garatzeko idatz daitezkeen erregalamenduzko xedapenen bidez. Agindu horretan zehaztuko dira urtero egoitzako plazak betetzeko berariazko deialdiaren baldintzak.

Komeni da ikasleak onartzeko baldintzak zehaztuko dituen oinarrizko araudia Dekretu maila duen arau batek xedatzea, eta, horrenbestez, beharrezkoa da uztailaren 2ko 164/2002 Dekretua aldatzea.

Bestalde, aipatutako dekretuaren 8. eta 9. artikuluetan xedatzen da zein diren Eibarko Hezkuntza Esparruko aginte orokorreko organoak: Gerentea eta Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Unitatearen burua, hain zuzen. Eta, orobat, zehazten da Eibarko Hezkuntza Esparruko aginte orokorra gerenteari dagokiola.

Gaur egun, beharrezkoa da beste funtzionamendu-eredu bat ezartzea, Eibarko Hezkuntza Esparrua osatzen duten zentroen eskumen eta funtzioetan oinarritua. Eta eredu horren baitan, beharrezkoa da kide anitzeko gobernu-organo batek zentro horien arteko beharrezko koordinazioa bermatzea eta Hezkuntza Esparru osoari eragiten dioten esparruetan erabaki egokiak hartzea.

Horri jarraituz, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusiriko izapideak egin ondoren, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzun ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko otsailaren 22an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

**1124**

DECRETO 24/2011, de 22 de febrero, de modificación del Decreto 164/2002 por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar.

El Decreto 164/2002, de 2 de julio, crea el Centro Residencial de Eibar y determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar.

El artículo 5.2 de dicho Decreto establece que la admisión del alumnado en el Centro Residencial del Complejo Educativo de Eibar estará regulada por una Orden del Consejero o Consejera de Educación, Universidades e Investigación, que anualmente determinará las condiciones de la convocatoria específica para acceder a las plazas existentes, así como por las disposiciones reglamentarias que se pudieran dictar en desarrollo de la citada Orden.

Resulta conveniente que la normativa básica reguladora de la admisión del alumnado sea determinada por una norma con rango de Decreto, para lo que es necesario modificar el Decreto 164/2002, de 2 de julio.

Por otra parte, en los artículos 8 y 9 del mencionado Decreto se determina que los órganos de gobierno general del Complejo Educativo de Eibar son el Gerente y el Jefe o Jefa de la Unidad de Gestión de Administración y Servicios y que el gobierno general del Complejo Educativo de Eibar corresponde al Gerente.

En la actualidad resulta necesario establecer un nuevo modelo de funcionamiento, basado en las competencias y funciones propias de los diferentes centros que componen el Complejo Educativo de Eibar, asegurando la coordinación necesaria entre dichos centros por medio de un órgano colegiado de gobierno que tome las decisiones pertinentes en los ámbitos que afecten al Complejo Educativo en su conjunto.

En su virtud, una vez realizados los trámites previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, oído el Consejo Escolar de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 22 de febrero de 2011,

XEDATZEN DUT:

***Lehenengo artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 5. artikuluko 2. atala aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«5.2. artikulua.– Eibarko Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentroan egoitza izango duten pertsonen onarpena dekretu honetako Laugarren Kapituluan xedatutakoaren bidez arautuko da».

***Bigarren artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 6. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«6. artikulua.– Eibarko Hezkuntza Esparruak aurrekontua eta administraziorako eta zerbitzuetarako langileak izango ditu izendatuta, Esparruko eta hura osatzen duten zentroetako zerbitzuak betetzeko».

***Hirugarren artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 7. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«7. artikulua.– Dekretu hau indarrean jartzen denean Eibarko Hezkuntza Esparruan behin betiko destinoa duten administraziorako eta zerbitzuetarako langileek, euren atxikipen eta lan-egoerari eutsiko diete».

***Laugarren artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 8. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«8. artikulua.– Eibarko Hezkuntza Esparruko zuzendaritza-organoak hauek dira: Zuzendaritza Kontseilua eta Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Unitatearen burua».

***Bosgarren artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 9. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«9. artikulua.– Zuzendaritza Kontseiluak du Eibarko Hezkuntza Esparruaren zuzendaritza orokorraren ardura».

***Seigarren artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko

DISPONGO:

***Artículo primero.–*** Se modifica el apartado 2 del artículo 5 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 5.2.– La admisión de personas residentes en el Centro Residencial del Complejo Educativo de Eibar se regirá por lo dispuesto en el Capítulo Cuarto del presente Decreto».

***Artículo segundo.–*** Se modifica el artículo 6 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 6.– El Complejo Educativo de Eibar dispondrá de asignaciones presupuestarias y de personal de administración y servicios para los servicios del Complejo y de los centros que lo componen».

***Artículo tercero.–*** Se modifica el artículo 7 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 7.– El personal de administración y servicios que, a la fecha de entrada en vigor de este Decreto, tuviera destino definitivo en el Complejo Educativo de Eibar, mantendrá su adscripción y situación laboral sin variación alguna».

***Artículo cuarto.–*** Se modifica el artículo 8 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 8.– Los órganos de gobierno del Complejo Educativo de Eibar son el Consejo de Dirección y el Jefe o Jefa de la Unidad de Gestión de Administración y Servicios».

***Artículo quinto.–*** Se modifica el artículo 9 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 9.– El gobierno general del Complejo Educativo de Eibar corresponde al Consejo de Dirección».

***Artículo sexto.–*** Se modifica el artículo 10 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la es-

164/2002 Dekretuaren 10. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«10.1. artikulua.– Honako hauek osatuko dute Eibarko Hezkuntza Esparruaren Zuzendaritza Kontseilua: Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Unitatearen buruak, Eibarko Egoitza Zentroko zuzendariak, «Uni Eibar-Ermua» BHIko zuzendariak, eta, dekretu honetako 3. artikuluaren 2. atalean xedatutakoaren arabera, etorkizunean Eibarko Hezkuntza Esparrukoak izan daitezkeen ikastetxe publiko ez unibertsitarioetako zuzendariek.

2.– Eibarko Hezkuntza Esparruko Zuzendaritza Kontseilua hilean behin bilduko da gutxienez, edo kideetako batek eskatzen duenean. Kontseilua osatzen duten pertsona guztiek hitz- eta boto-eskubidea izango dute. Erabakiak hartzeko aski izango da gehiengo soila».

***Zazpigarren artikulua.***– Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 11. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«11. artikulua.– Eibarko Hezkuntza Esparruko Zuzendaritza Kontseiluaren ardura izango dira egiteko hauek:

a) Eibarko Hezkuntza Esparrua ofizialki ordezkatzea. Zuzendaritza Kontseiluak kasu bakoitzean egiteko hau bertako kideetako baten esku utziko du.

b) Hezkuntza Esparruko zerbitzu, espazio eta baliabide komunak zehaztea.

c) Hezkuntza Esparruko zerbitzuak eta instalazioak eta erabilera komuneko espazio, eraikin eta eraikuntzen erabilera zuzentzea eta koordinatzea.

d) Hezkuntza Esparruaren aurrekontua onartzea, aldian behin aurrekontu horren jarraipena egitea eta bete egin dela berrestea.

e) Hezkuntza Esparruko instalazioetako lanak eta hobekuntzak egiteko beharrezkoak diren inbertsioak onartzea eta ikuskatzea, lehentasunak finkatzea eta horien segimendua egitea.

f) Hezkuntza Esparruko zerbitzu eta baliabide komunen jarduera ekonomikoa eta administratiboa koordinatzea eta modu egokian kudeatzen direla zaintzea.

g) Hezkuntza Esparrura atxikitako administrazioko eta zerbitzuetako langileen lan-antolaketa onartzea eta koordinatzea, betiere indarrean den legedia eta langile horien lan-eskubideak errespetatuz. Langile horien artean lanak banatzeko irizpide orokorrak zehaztea eta lan horiek betetzeko irizpideak finkatzea. Irizpide horiei jarraituz, Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Unitateko buruak hartutako erabakiak berres-

tructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 10.1.– El Consejo de Dirección del Complejo Educativo de Eibar estará formado por el Jefe o Jefa de la Unidad de Gestión, Administración y Servicios, el Director o Directora del Centro Residencial de Eibar, el Director o Directora del IES «Uni Eibar-Ermua», y los Directores o Directoras de los centros docentes no universitarios que, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 3 del presente Decreto, pudieran formar parte en el futuro del Complejo Educativo de Eibar.

2.– El Consejo de Dirección del Complejo Educativo de Eibar se reunirá, al menos, una vez al mes, o cuando lo solicite alguno o alguna de sus miembros. Todas las personas componentes del mismo tendrán derecho a voz y voto. Las decisiones se tomarán por mayoría simple».

***Artículo séptimo.***– Se modifica el artículo 11 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 11.– Corresponde al Consejo de Dirección del Complejo Educativo de Eibar:

a) Representar oficialmente al Complejo Educativo de Eibar, delegando esta función, en cada caso, en alguno de sus miembros.

b) Definir los servicios, espacios y recursos comunes del Complejo Educativo.

c) Dirigir y coordinar los servicios e instalaciones y el uso de los espacios, edificios y construcciones de utilización común del Complejo Educativo.

d) Aprobar el presupuesto del Complejo Educativo, realizar periódicamente su seguimiento y ratificar su ejecución final.

e) Aprobar y revisar las inversiones necesarias en obras y mejoras de las instalaciones del Complejo Educativo, establecer las prioridades y realizar el seguimiento de las mismas.

f) Coordinar la actividad económica y administrativa de los servicios y recursos comunes del Complejo Educativo velando por su adecuada gestión.

g) Aprobar y coordinar la planificación del trabajo del personal de administración y servicios adscrito al Complejo Educativo, respetando en todo caso la normativa vigente y los derechos laborales de dicho personal. Establecer los criterios generales para la distribución de tareas entre dicho personal y la fijación de los criterios para el desempeño de dichas tareas. Ratificar las decisiones que en cumplimiento de estos

tea edo, hala badagokio, egoki iritzitako aldaketak erabakitzea.

h) Hezkuntza Esparruz kanpoko taldeei bertako gela, instalazio eta zerbitzu komunak erabiltzeko baimena ematea, erabilera hori arautzen duen maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretua aintzat hartuta.

i) Obra-kontratuek eta zerbitzu-hornidura kontratuek bete beharreko baldintzen irizpideak zehaztea eta baldintza horiek aldatzeko proposamenak egitea, bere eskumenen barruan.

j) Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Unitateko buruak onartutako gastu-baimenak eta ordainketa-aginduak ikuskatzea eta haiek berrestea, edo, hala badagokio, egoki iritzitako aldaketak egitea.

k) Hezkuntza Esparruaren prestakuntza-jarduerak eta eskolaz kanpokoak (esparruko ikastetxe guztietarako komunak direnak) koordinatzea, arlo komunak modu egokian erabili ahal izateko, ikastetxeetako zuzendaritza-organoek beren eskumenen baitan izan ditzaketen eskuduntzetan eragin gabe.

l) Eibarko Hezkuntza Esparruan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, bietan, aldi berean eragina duten zerbitzu orokorrak elkarrekin erabiltzeko modua koordinatzea EHUko organoekin.

m) Indarrean diren legeak eta gainerako xedapenak betetzea eta betearaztea eta zuzendaritzaren eskumeneko esparruan zuzen aplikatzen direla zaintzea.

n) Arau bidez emandako gainerako eginkizunak».

***Zortzigarren artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 12. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«12. artikulua.– Eibarko Hezkuntza Esparruak Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Unitatea izango du. Administrazioko eta Zerbitzuetako tekniko bat izango da Unitate horren burua».

***Bederatzigarren artikulua.–*** Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 13. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«13. artikulua.– Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Unitatearen buruak izango du alderdi ekonomikoak, langileenak eta Hezkuntza Esparruko zerbitzu eta instalazio komunak kudeatzeko ardura, Zuzendaritza Kontseiluak onartutako irizpideak eta organo horrek berak hitzartutako Akordioak aintzat hartuta».

criterios adopte el Jefe o Jefa de la Unidad de Administración y Gestión o, en su caso, determinar las modificaciones que considere oportunas.

h) Autorizar el uso de dependencias, instalaciones y servicios comunes del Complejo Educativo por parte de grupos ajenos al mismo, conforme al Decreto 76/2008, de 6 de mayo, que regula dicha utilización.

i) Definir los criterios y proponer las modificaciones de las condiciones que deben cumplir los contratos de obras y prestaciones de servicios, en el ámbito de sus competencias.

j) Supervisar las autorizaciones de gastos y órdenes de pagos realizadas por el Jefe o Jefa de la Unidad de Administración y Gestión, ratificándolas o, en su caso, estableciendo las modificaciones que considere oportunas.

k) Coordinar las actividades formativas y extraescolares propias del Complejo Educativo y comunes a los diferentes centros del mismo, para una adecuada utilización de los ámbitos comunes, sin perjuicio de las atribuciones de los órganos de gobierno de los diferentes centros en el ámbito de sus competencias.

l) Coordinar con los órganos correspondientes de la UPV/EHU, la utilización conjunta de los servicios generales que afecten simultáneamente al Complejo Educativo de Eibar y a la Universidad del País Vasco.

m) Cumplir y hacer cumplir las leyes y demás disposiciones vigentes y velar por su correcta aplicación en el ámbito de su competencia.

n) Las demás funciones que se le atribuyan reglamentariamente».

***Artículo octavo.–*** Se modifica el artículo 12 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 12.– El Complejo Educativo de Eibar dispondrá de una Unidad de Gestión de Administración y Servicios. La Jefatura de esta Unidad será desempeñada por un Técnico o Técnica de Administración y Servicios».

***Artículo noveno.–*** Se modifica el artículo 13 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 13.– El Jefe o Jefa de la Unidad de Gestión, Administración y Servicios será la persona responsable de gestionar los aspectos económicos, de personal y de los servicios e instalaciones comunes del Complejo Educativo, de acuerdo con los criterios aprobados en el Consejo de Dirección y cumpliendo los Acuerdos adoptados por dicho órgano».

***Hamargarren artikulua.***– Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/2002 Dekretuaren 14. artikulua aldatu egingo da. Hona pasarte berria:

«14. artikulua.– Administrazio eta Zerbitzuen Kudeaketarako Unitatearen buruak egiteko hauek izango ditu:

a) Hezkuntza Esparrurako aurrekontu orokorra prestatzea, Zuzendaritza Kontseiluak onar dezan.

b) Hezkuntza Esparruaren aurrekontua betetzen dela segimendua egitea eta zaintzea, gastuak baimentzea eta gastu horien ordainketak agintzea, Zuzendaritza Kontseiluak onartutako irizpideak aintzat hartuta, aldian behin organo horri hartutako erabakien berri emanez eta, hala badagokio, erabakiak aldatuz, organo horrek onartutako moduan, zentro bakoitzeko zuzendaritza-organoek gai horretan izan ditzaketen eskuduntzetan eragin gabe.

c) Kudeaketa ekonomikotik sortutako kontabilitatea zaintzea.

d) Hezkuntza Esparruaren inbentarioa egitea eta eguneratuta edukitzea. Esparruko Zerbitzu, instalazio, eraikin eta eraikuntzetatik inbentario batean sar daitekeen materiala jasoko da inbentarioan.

e) Hezkuntza Esparruko liburuak eta artxibo orokorrak zaintzea.

f) Kontratazioak, inbertsioak eta materiala erosteko proposamenak prestatzeko egin beharrekoak egitea.

g) Hezkuntza Esparruko kontratuak eta zerbitzuen prestazioa betetzen direla zaintzea.

h) Hezkuntza Esparrurako hautatutako administrazio eta zerbitzuetako langileen buru izatea, Zuzendaritza Kontseiluak onartutako irizpideei jarraituz, aldian behin organo horri hartutako erabakien berri emanez eta, hala badagokio, erabakiak aldatuz organo horrek onartutako moduan. Langile horien nominak, administrazio-egoerak eta bestelakoak kudeatzea eta ordutegia betetzen dutela zaintzea.

i) Administrazio- eta ekonomia-lan orokorrak antolatzea eta agintzea eta kudeaketan zer lehentasun dauden adieraztea.

j) Hezkuntza Esparruko jardueren urteko memoria egitea bere eskumeneko arloan eta Zuzendaritza Kontseiluaren zuzendaritzapean.

k) Hezkuntza Esparrua osatzen duten ikastetxeei beren aurrekontua betetzeko zereginean laguntzea, baita zentro horietako obrekin eta zerbitzuen prestazioarekin loturiko beste zereginetan ere.

***Artículo décimo.***– Se modifica el artículo 14 del Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«Artículo 14.– Corresponde al Jefe o Jefa de la Unidad de Gestión de Administración y Servicios:

a) Elaborar el presupuesto general del Complejo Educativo para su aprobación por el Consejo de Dirección.

b) Realizar el seguimiento y control de la ejecución del presupuesto del Complejo Educacativo, autorizar los gastos y ordenar los pagos correspondientes al mismo de acuerdo con los criterios aprobados por el Consejo de Dirección, informando periódicamente a dicho órgano de las decisiones adoptadas y, en su caso, modificándolas en los términos que apruebe dicho órgano, sin perjuicio de las atribuciones que en esta materia correspondan a los órganos de gobierno de cada centro.

c) Cuidar de la contabilidad derivada de la gestión económica.

d) Realizar y mantener actualizado el inventario del Complejo Educativo, que contendrá el material inventariable correspondiente a los servicios, instalaciones, edificios y construcciones del mismo.

e) Custodiar los libros y los archivos generales del Complejo Educativo.

f) Realizar los actos preparatorios de las contrataciones, inversiones y propuestas de adquisición de material.

g) Supervisar la ejecución de los contratos y prestación de servicios del Complejo Educativo.

h) Ejercer la jefatura del personal de administración y servicios asignado al Complejo Educativo, de acuerdo con los criterios aprobados por el Consejo de Dirección, informando periódicamente a dicho órgano de las decisiones adoptadas y, en su caso, modificándolas en los términos que apruebe dicho órgano. Gestionar las nóminas, situaciones administrativas, control del cumplimiento de horarios y otras incidencias de dicho personal.

i) Planificar y ordenar los trabajos administrativos y económicos generales y señalar las prioridades en la gestión.

j) Elaborar, bajo la dirección del Consejo de Dirección, la memoria anual de actividades del Complejo Educativo, en el ámbito de su competencia.

k) Asistir a los centros que forman parte del Complejo Educativo en el cumplimiento del presupuesto correspondiente a cada uno de ellos, así como en otros aspectos relacionados con la ejecución de obras y prestación de servicios en dichos centros.

l) Zuzendaritza Kontseiluak haren eskumeneko arloan agindu dakizkiokeen eginkizunak eta ardurak eta araudiari jarraituz egokitzen zaizkionak».

***Hamaikagarren artikulua.***– Eibarko Egoitza Zentroa sortzeko eta Eibarko Hezkuntza Esparruaren egitura eta administrazio-antolaketa zehazteko uztailaren 2ko 164/200 Dekretuan Laugarren Kapitulua gehituko da. Hona nola geratuko den kapitulu hori:

«LAUGARREN KAPITULUA

EIBARKO EGOITZA ZENTROAN IKASLEAK ONARTZEKOARI BURUZKOA

***17. artikulua.***– Egoiliarren plaza kopurua Ikastetxeetako zuzendariak erabakiko du urtero, Egoitza Zentroaren edukiera aintzat hartuta.

***18. artikulua.***– Eibarko Egoitza Zentroan onartuak izateko aukera izango dute eskualdeko ikastetxeren batean dagokion ikasturtean ikasketak egiteko matrikulatuta dauden edo onartuak izan diren pertsonek. Ikastetxe hauetan, hain zuzen:

– Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola.

– Eibarko «Uni Eibar-Ermua» BHI.

– Eibarko «Arma Eskola» GLHBI».

– Eibarko «Ignacio Zuloaga» BHI.

– Elgoibarko «Elgoibar-Arreiturre» BHI.

– Elgoibarko «Meka» GLHBI.

– Elgoibarko «Makina Erreminta» BHI.

– Etorkizunean Eibarren eta Elgoibarren unibertsitate-hezkuntza, batxilergoa edo Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloak irakasteko ezar daitekeen beste edozein ikastetxe publiko.

Ez dute baldintza hori bete beharko terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 28.2 artikuluan zehaztutako kasuetan dauden pertsonek, ez eta etxeko tratu txarren biktimek eta haien adin txikiko seme-alabek.

***19. artikulua.***– Ikastetxeetako zuzendariak emandako Ebazpenaren bidez arautuko dira ikasleak onartzeko prozedura, prozedura hori gauzatzeko epeak, eskaerak aurkezteko epeak, era eta lekua, eskaerekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratzeko eta zerrenda hori helegiteak aurkezteko epeak eta behin betiko zerrenda argitaratzeko epeak. Hezkuntza eta Unibertsitate Sailak eskumena izango

l) Las funciones y responsabilidades que le pueda encomendar el Consejo de Dirección en el ámbito de su competencia y las que se le atribuyan reglamentariamente».

***Artículo undécimo.***– Se añade un Capítulo cuarto al Decreto 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, que queda redactado de la siguiente forma:

«CAPÍTULO CUARTO

DE LA ADMISIÓN DEL ALUMNADO EN EL CENTRO RESIDENCIAL DE EIBAR

***Artículo 17.***– El número de plazas de residencia será fijado anualmente por el Director o Directora de Centros Escolares, de acuerdo con la capacidad del Centro Residencial.

***Artículo 18.***– Podrán optar a ser admitidos en el Centro Residencial de Eibar las personas que se encuentren matriculadas o hayan sido admitidas para realizar estudios en el curso correspondiente en alguno de los siguientes Centros docentes de la zona:

– Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Eibar.

– IES «Uni Eibar-Ermua» de Eibar.

– IEFPS «Armería Estola» de Eibar.

– IES «Ignacio Zuloaga» de Eibar.

– IES «Elgoibar-Arreiturre» de Elgoibar.

– IEFPS «Meka» de Elgoibar.

– IES «Máquina Herramienta» de Elgoibar.

– Cualquier otro centro público docente que pueda implantarse en un futuro en los municipios de Eibar y Elgoibar e imparta educación universitaria, Bachillerato o Ciclos Formativos de FormaciónProfesional.

Quedan exentas del cumplimiento de este requisito las personas incluidas en los supuestos contemplados en al artículo 28.2 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo, así como las víctimas de maltrato doméstico y sus hijos e hijas menores de edad.

***Artículo 19.***– Por Resolución del Director o Directora de Centros Escolares se establecerá el procedimiento de admisión, los plazos, forma y lugar de presentación de solicitudes, la documentación que habrá de acompañarse a las mismas, así como los plazos de publicación de la lista provisional de personas admitidas y excluidas y de presentación de reclamaciones a dicha lista y el plazo de publicación de la lista definitiva. El Departamento de Educación, Universidades

du eskabidea aurkeztu duten pertsonek emandako datuak egiazkoak direla egiaztatzeko beharrezkoak diren eginbeharrak egiteko.

***20. artikulua.–*** 1.– Aurreko ikasturtean Eibarko Egoitza Zentroan egoiliar izan ziren pertsonen plaza modu automatikoan berrituko da, beti ere dekretu honen 18. artikuluan xedatutako baldintza betetzen jarraituz gero eta Zentroaren Antolaketa eta Funtzionamendu Araudian iraupenerako zehaztutako baldintzak betez gero.

2.– Eskaera lehenbizikoz egin duten pertsonak onartzeko, berriz, eskabide guztiei erantzuteko adina egoitza-plaza daudenean dekretu honen 18. artikuluan xedatutako baldintza betetzen duten guztiak onartuko dira. Eskabideak egoitza-plazak baino gehiago direnean, lehenik eta behin plaza bana esleituko zaie terrorismoaren biktimei laguntza integrala emateko sistema garatzen duen azaroaren 9ko 290/2010 Dekretuaren 28.2 artikuluan zehaztutako kasuetan dauden pertsonei. Gainerako plazak esleitzeko dekretu honen eranskinean zehaztutako baremoa aplikatuko da eta hortik ateratako ordenaren arabera esleituko dira plazak. Honako hauek izango dira baremoaren irizpideak:

a) Familia-unitatearen urteko errenta.

b) Etxebizitzaren urruntasuna.

c) Zentroan egoitza duten anai-arrebak izatea.

d) Familia ugariko kide izatea.

e) Ezgaitasuna.

Berdinketarik gertatuko balitz, aurreko atal bakoitzean lortutako puntuazio handiena aintzat hartuta eta atal horiek adierazita dauden ordenari jarraituz ebatziko da plaza(k) nori esleitu. Berdinketak iraungo balu, Eibarko Egoitza Zentroko zuzendariak zozketa publikoa egingo du kontua ebazteko, eta emaitza zentro bereko idazkariak ziurtatuko du. Onartzeko prozesua Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diseinatutako prozedura informatizatu baten bidez egiten bada, zozketa publikoaren ordez dagokion informatika-aplikazioak berak egindako ausazko prozedura erabiliko da.

***21. artikulua.–*** Egoitza-plazak banatzeko baremazioa eta proposamena Hautaketa Egiteko eta Plazak Esleitzeko Batzorde batek egingo du. Eta batzorde horrek berak zenbait ordezko izendatuko ditu, gerta litezkeen hutsuneak betetzeko. Honako hauek izango dira batzorde horretako kideak:

– Ikastetxeetako zuzendaria edo hark ordezko izendatzen duena; bera izango da Batzordeko presidentea.

podrá desarrollar acciones que permitan comprobar la veracidad de los datos aportados por las personas solicitantes.

***Artículo 20.–*** 1.– La renovación de las plazas de las personas que en el curso anterior disfrutaron de una plaza de residencia en el Centro Residencial de Eibar, se producirá de forma automática, siempre que se mantenga el cumplimiento del requisito previsto en el artículo 18 del presente Decreto y se cumplan los requisitos de permanencia establecidos a tal efecto en el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Centro.

2.– En cuanto a la admisión de las nuevas personas solicitantes, cuando existan plazas de residencia suficientes para atender la totalidad de la demanda, serán admitidas todas aquellas que cumplan el requisito establecido en el artículo 18 del presente Decreto. Cuando el número de plazas de residencia sea inferior al número de solicitantes, en primer lugar se adjudicará una plaza a las personas a las que sea de aplicación lo dispuesto en el artículo 28.2 del Decreto 290/2010, de 9 de noviembre, de desarrollo del sistema de asistencia integral a las víctimas del terrorismo. Las plazas restantes se adjudicarán según el orden que resulte de la aplicación del baremo establecido en el anexo del presente Decreto, cuyos criterios serán los siguientes:

a) Renta anual de la unidad familiar.

b) Lejanía del domicilio.

c) Existencia de hermanos o hermanas residentes en el Centro.

d) Pertenencia a familia numerosa.

e) Discapacidad.

En caso de empate, éste se dirimirá atendiendo la mayor puntuación obtenida en cada uno de los apartados anteriores, según el orden en el que están enunciados. Si persistiera el empate se resolverá por medio un sorteo público realizado por el Director o Directora del Centro Residencial de Eibar, cuyo resultado será certificado por el Secretario o Secretaria del mismo. En caso de que el proceso de admisión se lleve a cabo por medio de un procedimiento informatizado diseñado por el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, el sorteo público será sustituido por un procedimiento aleatorio realizado por la aplicación informática correspondiente.

***Artículo 21.–*** La baremación y propuesta de adjudicación de las plazas de residencia, así como la designación de un número de suplentes para cubrir las posibles vacantes, la realizará una Comisión de Selección y Adjudicación de Plazas que estará formada por:

– El Director o Directora de Centros Escolares o persona en quien delegue, que actuará como presidente o presidenta de la Comisión.

– Eibarko Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentroko zuzendaria edo hark ordezko izendatzen duena.

– Eibarko Hezkuntza Esparruko Egoitza Zentroko idazkaria; bera izango Batzordeko idazkaria, ahotsarekin baina botorik gabe.

***22. artikulua.–*** Behin eskaerak barematuta eta plazak banatuta, Eibarko Egoitza Zentroko iragarki-oholean argitaratuko da onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda. Eskaerak barematu behar izan badira, baremoaren atal bakoitzean lortutako puntuak eta guztizko puntuazioak adieraziko dira zerrenda horretan.

Zerrenda horiek behin-behinekoak izango dira, eta helegitea aurkezteko aukera izango da Hautaketa Egiteko eta Plazak Banatzeko Batzordearen aurrean, zentroan bertan aurkeztutako idatzi baten bidez.

Behin aurkeztutako helegiteak ebatzita, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da Eibarko Egoitza Zentroko iragarki-oholean. Era berean, itxaron-zerrenda ere argitaratuko da, behar den moduan ordenatuta. Onartutako pertsonen zerrendan gerta daitezkeen hutsuneak betetzeko, itxaronzerrendan dauden pertsonei deituko zaie, zerrenda horretan dauden ordenari jarraituz.

Interesdunek onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendaren kontra gorako errekurtsoa jartzeko aukera izango dute Hezkuntzako sailburuordearen aurrean. Hilabeteko epea izango dute horretarako, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

***23. artikulua.–*** Dekretu honen 18. artikuluan adierazitako baldintza betetzen duten pertsonei plazen esleipena proposatu ondoren, egoitzan plazarik geratuz gero, Hautaketa Egiteko eta Plazak Esleitzeko Batzordeak baldintza hori bete ez arren eskabidea egin duten beste zenbait pertsona onartzeko proposamena egin ahal izango dio Ikastetxeetako zuzendariari. Beste baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak, hain zuzen: inguruko enpresa, ikerketa-zentro edo ikastetxeren batean praktikak, lankidetza-beken laguntzarekin ikerketa-lanak edo karrera amaierako proiektuak egiten ari direnak, Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialeko mintzalagunak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailerako interesekoak izan daitezkeen antzeko beste kasu batzuk.

***24. artikulua.–*** Egoitza Zentroak data batzuk jarriko ditu onartutako pertsonak egoitzara joateko, ikasketak egiten dituzten ikastetxeko egutegia aintzat hartuta. Emandako data horietan onartutako pertsonak ez badira egoitzara joaten, egoitza-plazaz gozatzeko eskubideak galduko dituzte, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

– El Director o Directora del Centro Residencial del Complejo Educativo de Eibar o persona en quien delegue.

– El Secretario o Secretaria del Centro Residencial del Complejo Educativo de Eibar que actuará como Secretario o Secretaria de la Comisión con voz y sin voto.

***Artículo 22.–*** Una vez baremadas las solicitudes y adjudicadas las plazas se hará pública, en el tablón de anuncios del Centro Residencial de Eibar, la relación de personas admitidas y excluidas, con expresión, en los casos en los que haya sido necesario proceder a la baremación de las solicitudes, de la puntuación obtenida en cada apartado del baremo, así como de la puntuación total.

Dichas listas tendrán carácter provisional, y podrán ser objeto de reclamación ante la Comisión de Selección y Adjudicación de Plazas, mediante escrito presentado en el propio centro.

Una vez resueltas las reclamaciones presentadas, se publicará la lista definitiva de personas admitidas y excluidas en el tablón de anuncios del Centro Residencial de Eibar. Se publicará asimismo la correspondiente lista de espera convenientemente ordenada. Para cubrir las vacantes que se pudieran producir en la lista de personas admitidas se procederá a llamar a las personas de la lista de espera, por el orden en que figuren en dicha lista.

Contra la lista definitiva de personas admitidas y excluidas, las personas interesadas podrán interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero o Viceconsejera de Educación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a la publicación de dicha lista.

***Artículo 23.–*** Si una vez propuesta la adjudicación de plazas a las personas solicitantes que cumplen el requisito señalado en el artículo 18 del presente Decreto quedaran plazas vacantes, la Comisión de Selección y Adjudicación de Plazas podrá proponer al Director o Directora de Centros Escolares la admisión de personas solicitantes que no cumpliendo dicho requisito, realicen prácticas, trabajos de investigación con becas de colaboración o proyectos de fin de carrera en alguna empresa, centro de investigación o centro educativo del entorno, así como a las personas auxiliares de conversación de la Escuela Oficial de Idiomas de Eibar y otros casos similares de interés para el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

***Artículo 24.–*** Las personas admitidas que no se incorporen en las fechas que el Centro Residencial les asigne, fechas que deberán tener en cuenta el calendario escolar del centro en que cursan sus estudios, perderán los derechos de disfrute de la plaza de residencia, salvo en los casos de fuerza mayor debidamente justificados.

Egoitza-plaza duten pertsonek Eibarko Egoitza Zentroko barnetegi-arauak bete beharko dituzte.

***25. artikulua.–*** Deialdia erabat ebatzi ondoren, plaza hutsik geratuz gero, Egoitza Zentroko zuzendariak egoitzan beste zenbait pertsona onartzeko baimena eman ahal izango du, eskabidea egiten duten unetik ikasturtea amaitu arte; dagokion eskabidea egin eta dekretu honen 18. artikuluan edo 23. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen dituzten pertsonak, hain zuzen. Egoitza Zentroko zuzendariak egoitzan plaza hartu duten pertsonen zerrenda helarazi beharko dio berehala Ikastetxeetako zuzendariari.

Era berean, ikasturteko edozein unetan, Egoitza Zentroko zuzendariak aukera izango du aldi baterako dauden pertsonak denbora-epe jakin batean egoitzan onartzeko, beti ere plaza hutsak egonez gero eta aldi baterako okupazio hori ikasle egoiliarren eskubideekin bateragarria izanez gero.

Beren jarduerak eta programak gauzatzeko aldi baterako egoitzako plazak eta jangela-zerbitzua behar dituzten pertsonei eta hezkuntza, gizarte, kultura, kirol eta antzeko beste arlo batzuetako elkarteei emango zaizkie baimen horiek. Baimen horiek ematerakoan, lehentasuna emango zaie beti eskabidea hezkuntza arloko jarduerak eta programak gauzatzeko egiten duten pertsonei eta elkarteei; hala nola, Bidaia Eskolei, Eskola Trukeei, Europako Programei, etab.

Aldi baterako egoiliarren onarpena baimentzeko ez da beharrezkoa izango pertsona horiek dekretu honen 18. edo 23. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzea.

Egoitza Zentroko zuzendariak aldi baterako onartutako pertsonen zerrenda helaraziko dio Ikastetxeetako zuzendariari, eta noiztik noiz arte onartuak izan diren jakinaraziko dio. Jakinarazpen hori gutxienez urtean behin bidali beharko du egoitzako zuzendariak, eta Ikastetxeetako zuzendariak eskatzen duen aldiro.

Egoiliar ez diren beste pertsona edo elkarte batzuek uneren batean Egoitza Zentroko lokalak eta gelak erabiltzekotan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden ikastetxe publiko ez unibertsitario guztientzat orokorrean xedatutakoa bete beharko dute, eta Gipuzkoako Hezkuntzako Lurralde-ordezkariaren baimena eskatu beharko dute horretarako.

***26. artikulua.–*** Kapitulu honetan xedatutakoaren ondorioz, pertsona fisikoek edo pertsona fisikoen ordezkariek Administrazioarekin dituzten harremanetan,

Las personas beneficiarias de la plaza de residencia estarán sujetas a las normas de régimen interno del Centro Residencial de Eibar.

***Artículo 25.–*** Si una vez resuelta totalmente la convocatoria quedaran plazas vacantes, el Director o Directora del Centro Residencial podrá autorizar la admisión en la Residencia, desde el momento en que lo soliciten hasta la finalización del curso, de aquellas personas que efectúen la correspondiente solicitud y cumplan los requisitos establecidos en el artículo 18 o en el artículo 23 del presente Decreto. El Director o Directora del Centro Residencial deberá dar comunicación inmediata de estas nuevas incorporaciones al Director o Directora de Centros Escolares.

Asimismo, en cualquier momento del curso, el Director o Directora del Centro Residencial podrá autorizar la admisión en el Centro Residencial de Eibar por un periodo determinado de tiempo, de personas residentes ocasionales, siempre y cuando existan plazas vacantes y su ocupación temporal sea compatible con los derechos del alumnado residente.

Estas autorizaciones se concederán a aquellas personas u organizaciones educativas, sociales, culturales, deportivas o similares que requieran la utilización temporal de las plazas y del servicio de comedor de la Residencia para la organización o realización de sus actividades y programas. Siempre se dará preferencia para la concesión de estas autorizaciones a las personas u organizaciones que las soliciten para la realización de actividades y programas educativos, tales como Escuelas Viajeras, Intercambios Escolares, Programas Europeos, etc.

Para autorizar la admisión de estas personas residentes ocasionales no será necesario que cumplan los requisitos establecidos en el artículo 18 o en el artículo 23 del presente Decreto.

El Director o Directora del Centro Residencial comunicará al Director o Directora de Centros Escolares la relación de personas residentes ocasionales admitidas en la Residencia, así como el periodo de tiempo para el que han sido admitidas. Esta comunicación deberá remitirse al menos una vez al año y siempre que sea requerida por el Director o Directora de Centros Escolares.

El uso puntual de los locales y dependencias del Centro Residencial por parte de otras organizaciones o personas no residentes, se ajustará a lo dispuesto con carácter general para todos los centros públicos docentes no universitarios dependientes del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, debiendo solicitarse la correspondiente autorización del Delegado o Delegada Territorial de Educación de Gipuzkoa.

***Artículo 26.–*** En las relaciones que, como consecuencia de lo establecido en este Capítulo, tengan las personas físicas o los representantes de las personas

ahoz nahiz idatziz, euskara eta gaztelera erabiltzeko eskubidea bermatuko da, baita hizkuntza bietan arreta jasotzeko eskubidea ere».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko otsailaren 22an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

OTSAILAREN 22KO 24/2011 DEKRETUAREN ERANSKINA

EIBARKO EGOITZA ZENTROAN IKASLEAK ONARTZEKO BAREMOA

A) Familia-unitatearen urteko errenta:

– Eskabidea egin duen familia-unitatearen zerga-oinarria urte horretako lanbide arteko gutxieneko soldataren halako bi edo gutxiago bada: 4 puntu.

– Eskabidea egin duen familia-unitatearen zerga-oinarria urte horretako lanbide arteko gutxieneko soldataren halako bi baino handiagoa bada baina soldata horren hirukoitzaren parekoa edo txikiagoa bada: 3 puntu.

– Eskabidea egin duen familia-unitatearen zerga-oinarria urte horretako lanbide arteko gutxieneko soldataren hirukoitza baino handiagoa bada baina soldata horren laukoitzaren parekoa edo txikiagoa bada: 2 puntu.

– Eskabidea egin duen familia-unitatearen zerga-oinarria urte horretako lanbide arteko gutxieneko soldataren laukoitza baino handiagoa bada baina soldata horren boskoitzaren parekoa edo txikiagoa bada: puntu 1.

B) Etxebizitzaren urruntasuna:

– Eskabidea egin duen pertsona Eibartik 80 kilometro baino urrunago dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean bizi bada: 4 puntu.

– Eskabidea egin duen pertsona Eibartik 60 kilometro baino urrunago dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean bizi bada: 3 puntu.

jurídicas con la Administración pública, se garantizará su derecho a utilizar, bien oralmente, bien por escrito, el euskera y el castellano y a ser atendidos en el mismo idioma».

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de febrero de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ANEXO AL DECRETO 24/2011, DE 22 DE FEBRERO

BAREMO PARA LA ADMISIÓN DE ALUMNADO EN EL CENTRO RESIDENCIAL DE EIBAR

A) Renta anual de la unidad familiar:

– Si la base imponible de la unidad familiar de la persona solicitante es igual o inferior al doble del salario mínimo interprofesional del año correspondiente: 4 puntos.

– Si la base imponible de la unidad familiar de la persona solicitante es superior al doble del salario mínimo interprofesional del año correspondiente pero es igual o inferior al triple del mismo: 3 puntos.

– Si la base imponible de la unidad familiar de la persona solicitante es superior al triple del salario mínimo interprofesional del año correspondiente pero es igual o inferior al cuádruple del mismo: 2 puntos.

– Si la base imponible de la unidad familiar de la persona solicitante es superior al cuádruple del salario mínimo interprofesional del año correspondiente pero es igual o inferior al quíntuplo del mismo: 1 punto.

B) Lejanía del domicilio:

– Si el domicilio de la persona solicitante está ubicado en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco distante de Eibar más de 80 kilómetros: 4 puntos.

– Si el domicilio de la persona solicitante está ubicado en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco distante de Eibar más de 60 kilómetros: 3 puntos.

– Eskabidea egin duen pertsona Eibartik 40 kilometro baino urrunago dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean bizi bada: 2 puntu.

– Eskabidea egin duen pertsona Eibartik 20 kilometro baino urrunago dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri batean bizi bada: puntu 1.

C) Zentroan egoitza duten anai-arrebak izatea:

– Egoitza Zentroan jada matrikulatuta dagoen anai-arreba bat edo gehiago izateagatik: 4 puntu.

Irizpide hau aplikatzerakoan, anai edo arrebatzat hartuko dira familia bereko seme-alabak eta abegi-familian dauden pertsonak edo familia horretan adopzio aurreko egoeran daudenak.

D) Familia ugariko kide izatea:

– Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: 1,5 puntu.

– Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 3 puntu.

E) Ezgaitasuna:

– Eskatzailearena: 3 puntu.

– Aitarena, amarena, legezko tutorearena edo anaia nahiz arrebaren batena: 1,5 puntu.

– Si el domicilio de la persona solicitante está ubicado en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco distante de Eibar más de 40 kilómetros: 2 puntos.

– Si el domicilio de la persona solicitante está ubicado en un municipio de la Comunidad Autónoma del País Vasco distante de Eibar más de 20 kilómetros: 1 punto.

C) Existencia de hermanos o hermanas residentes en el Centro:

– Por tener uno o más hermanos o hermanas ya matriculadas en el Centro Residencial: 4 puntos.

En la aplicación de este criterio se dará el mismo tratamiento de hermana o hermano a los hijos e hijas pertenecientes a una misma familia y a las personas que estén en situación de acogida familiar o de preadopción en dicha familia.

D) Pertenencia a familia numerosa:

– Por pertenecer a una familia numerosa de categoría general: 1,5 puntos.

– Por pertenecer a una familia numerosa de categoría especial: 3 puntos.

E) Discapacidad:

– De la persona solicitante: 3 puntos.

– De su padre o de su madre o de su tutor o tutora legal o de alguno de sus hermanos o hermanas: 1,5 puntos.